

# TINGLAUA

taun  
taun  
teatroa

Objektuen  
instalazio  
teatrara



# Zer da TINGLAUA?


“Zerbait eusteko eta estaltzeko inprobisatzen den edozein armazoi mota”.

TINGLAUA objektuen instalazio teatral bat da. Bisitariak aske sentitzen dira bertan. Kuxkuxeatzeko aske, manipulatzeko aske. Jolasteko aske, inprobisatzeko aske.

Instalazioa esperientzia bilakatzen da. Kale, hondartza, errepide, trasteleku edo garajeetan aurkitu ditugun edo aurkitu gaituzten objektu eta materialek osatzen dute. Erakarri gaituzte, edo erakarriak sentitu dira, eta inpultso bat, sentsazio bat, pentsamendu bat iradoki digute.

Ukitzea, eskuartean hartzea, eta haiekin jolastea, beraien mugimendua eta arima deskubritzeko bidea da.

Espazio magiko honetan sartzera gonbidatzen zaituztegu. Amesteko, beste mundu batzuk asmatzeko, objektuan ezkutuko pertsonaia bilatzeko, beste toki batetik begiratzeko, begi berdinekin baina arreta ezberdin batekin. Ziurrenik ezustekoa izango den arretarekin.



# Gonbidapen bat

Instalazio honen ideia manipulazioaren mundua eta objektu-txotxongiloa sortzearena publikoari hurbiltzeko beharretik sortu da.

Hemen, publikoa ez da ikusle soil bezala ulertzen, aktore manipulatzaile gisa baizik. Hala, garrantzitsuena espazioan egiten den interbentzioa da, objektuak manipulatzeko sortzen duen gozamena, jolas teatrala, eta bisitarien arteko harremana.

Txotxongiloaren bilaketa bide bat da, sormenerako gonbidapena. Bidaia labur bat espazio erraz, arin eta jasangarri baten barruan. Itsaso bat, zirku bat, korta bat edo humanoide-gune bat bezalako eremu iradokitzaile eta desberdinak zeharkatzen dituen bidaia. Gune huetan objektuek beren arima propioa, beren mugimendua eta begirada agerian jartzen dituzte. Eta objektu hauek guztiak aurkitutako materialekin, itsasoak ekarritako egurrekin, berreskuratutako gauza zaharrek egin dira.

Samurtasuna eta artisau lana baloratzeko gonbita. Irudimena erabiltzeko, "berriz" ukitzeko gonbita.

Tarte bat pantailen argietatik urrun, beste argi bat ere gu harrapatzeko gai dela deskubritzeko.



Titeresante aldizkarian, 2019ko abenduaren 1ean Enkarni Genuak idatzitako aipamena, Tolosako Titirijai-Tolosako Nazioarteko Txotxongilo jaialdian aurkeztutako instalaziora egindako bisitaren kariaz

“Tolosako Titirijaiko egun hauetako batean Taun Taunen TINGLAUarekin topo egin dudanean, halako emozio eta esker on bat sentitu dut, Onura Publikoko Saria emateko zerrenda bat hasteko gogoia eman didatenak. Lagunak, JOLASTEA garrantzitsua delako. Letra larriz”.





## TAILERRAK

Aurkitutako objektu eta materialetatik abiatuta txotxongiloak egiteko tailerrak.

## BISITA GIDATUAK

- 15-20 pertsonen taldeak / 15-20 minututako bisitak.
- Instalazioa egun baterako edo gehiagotarako kontratatzeko aukera.
- Ikasleak eta publiko orokorra.
- Barruko edo kanpoko espaziotan egiteko egokia.

## BIDEOA IKUSI



## FITXA TEKNIKOA

- Barruko edo kanpoko espaziotan egin daiteke.
- (la) espazio mota guztietara egokitu daiteke.
- Ahal dela, 15 metroko diametroko espazioa.
- Kanpoan egiten bada, perímetro-hesia.
- Korrante hargunea: 220v
- Furgoneta instalazioa egingo den espazioraino sartzeko aukera.
- Furgoneta aparkatzeko tokia.
- Muntaian eta desmuntaian lagunduko duen pertsona bat.
- Zaintza atsedendietan edo/eta gauetan.
- Muntatzeko denbora: 2 ordu eta erdi.
- Desmuntatzeko denbora. 2 ordu eta erdi.





## Taun Taun Teatroa

1987an sortu zen. Hasieratik, bere helburu nagusia Txotxongiloen Antzerkia, Objektuena, Antzerki Bisuala ikertzea, sortzea eta lantzea izan da. Betiere ikuslego heldu batentzat.

## ANTZEZLANAK

Terror bajo los hilos  
Lam eta Lorea  
Bi Kate  
Taun Taun Show  
Makinatu  
Ububabel  
Txio txioka  
KontArte  
Galtzerdia  
TE-A-U-ENE  
Batuta  
Ixiltasunak  
Lau haizetara

## IKUSENTZUNEZKOAK

Auftinfx4 (Asier Altunak zuzendua)  
Sipo fantasma (Koldo Almandozek zuzendua)

## INSTALAZIOAK

Kontuari kontu (Galtzagorri Elkarteak)  
Mikel Laboa gerturik (EHU, Mikel Laboa Katedra)  
Tinglaur. Objektuen Instalazio Teatrala.

## NAZIOARTEKO BIRAK

Argentina, Venezuela, Brasil, Kuba, Frantzia, Alemania, Italia, Holanda, India.

## BESTE BATZUK

Helduentzako Txotxongiloen Nazioarteko Mostraren antolakuntza Bergaran, 1991 urtetik.

# KONTRATAZIOA



Fotos: IÑIGO ROYO

**TAUN TAUN  
TEATROA:**

[tauntaunteatro@gmail.com](mailto:tauntaunteatro@gmail.com)

**Itsaso Azkarate:**  
670 224 209

**Karlos Odriozola:**  
610 217 243

taun  
taun  
teatroa